

# **FURRA FURRA**

**LAm REM LAM REM**  
Furra, furra, fandangua,  
**SOLM REM LAM REM**  
hortze duzu fandangua, geure guztukua. ( BIS )

**SOLM REM SOLM REM ( BIS )**

**REM SOLM REM**  
Gaur goizean jeiki naiz, humore onean,  
**SOLM REM MIm LA7ª REM**  
tanke bat topatu dut, neure kafesnean.  
**REM SOLM REM**  
Ez dakit zer dauzkagun, bake ala gerra,  
**SOLM REM MIm LA7ª REM**  
baina nik badaezpada egin dut puzkerra.

Furra, furra, fandangua, hortze duzu fandangua geure guztukua.

**REM SOLM LAM REM Sim MIm LA7ª REM**

Zerbait egitekotan zuzen eta artez, zorri bat garbitu dut, ur pistola batez.  
Orain galdurik nagô beldurrez beteta, muniziorik gabe gelditu naiz eta.

Furra, furra, fandangua, hortze duzu fandangua geure guztukua.

Neure arma bakarra, dut akordeoia, hauspoare eraginez dirudi lehoia.  
Eskua jaten badit, on egin dezaion, Cervantesi holakorik gertatu zitzaion.

Furra, furra, fandangua, hortze duzu fandangua geure guztukua.

Eta orain banoa, berriro ohera, bila ez badatoztik, lolo egitera.  
Bihar ikusiko da, ser dagoen berri, jakitsuenak ere ezin du igerri.

Furra, furra, fandangua, hortze duzu fandangua geure guztukua.